


Plastikozko hondakinik gabeko nekazal inguru baten alde!



**ZURE INGURUARI
BEGIRADA
BAT EMAN,
PLASTIKOZ
INGURATUTA
ZAUDE.**

**PLASTIKORIK
GABEKO
BIZITZA
IMAJINATZEN
DUZU?**



Erabilera anitzeko materiala da, nonahi dagoena eta gure bizitzetan ezinbestekoa dena? Gure baserrietara ere heldu zen, elikagaiak ekoizteko modua aldatuz eta nekazal zein abeltzaintza lanak asko erraztuz.



Baina behin erabilia
kudeatu beharreko

HONDAKIN,

bihurtzen da.
Bertan uztea, sua ematea edo lurperatzea
EZ DIRA aukera baliogarriak.

2000. urtetik irtenbideak ematen.



Urte horretan **LANDAOLA**-k Gipuzkoan martxan jarri zuen **Ne-kazaritzan eta Abeltzaintzan erabiltzen diren Plastiko Hondakinen (NAPH)** bilketa-sistema, Landa Garapenerako Elkarte (LGE) bitartez.

Landa Garapenerako Elkartek bakoitzak bere eskualdeko plastikoko bilketa antolatzen du, nahiz eta gainontzekoekin koordinatuta egon.




18 urte
NAPH biltzen.



266 biltze puntu inguru daude.

Landa gunetik **2.720**
tona plastikozko
hondakin baino gehiago
kendu dira.



Gutxi gorabeherako

39.500,00





urteko gastua.

NAPHak aurretik zehaztutako puntuetan biltzen dira eta, batzuetan, baserrietan, atez-ateko zerbitzuaren bitartez, aurretik ezarritako egutegi baten arabera.

Ondoren, biltze sistema honen ezaugarri nagusiak eskualdeka deskribatuko dira.





NAPH^{en} bilketa eskualdeka.



Gehiago
ikusteko zure
eskualdean
klik egin

DEBABARRENA:



NAPH bilketa puntuak.

Urrun dauden eta erabiltzaile gutxi-
ko puntuetan, bakarrik aldeaz aurre-
tikoko dei baten bitartez pasatzen da.


MAIZTASUNA: martxotik urrira
bi hilabetero, gainontzeko
hilabetetan hilabetero - hil
bakoitzaren 3. asteazkenean.

**2017. URTEAN BILDUTAKO
HONDAKINAK:**
55.000 kg

**MAPA
OROKORRERA**
itzuli



DEBAGOIENA:



NAPH bilketa puntuak.

6 puntu gehiago daude eta era-
biltzaileek telefonoz jakinarazten
badute, bertatik pasatzen da. Hon-
dakinak biltzeko tokia aldatzeko
aukera dago, garaiz telefonoz abi-
satzen bada.



MAIZTASUNA:

Udan bi hilabetero, urtean
zehar hilabetero
(hil bakoitzaren 4. asteartea).


2017. URTEAN BILDUTAKO HONDAKINAK:

44.300 kg

MAPA
OROKRERRA
itzuli




GOIERRI:



NAPH bilketa puntuak.

Urrun dauden eta erabiltzaile gutxi-
ko puntu batzuetan aurretik deituz
bakarrik pasatzen da.



MAIZTASUNA:

Uztaila eta abuztuaren ez dago
biketarik, gainontzeko hilabe-
tetan hilabetero egiten da, hil
bakoitzaren 3. asteartea.


2017. URTEAN BILDUTAKO HONDAKINAK:

75.000 kg

**MAPA
OROKORRERA**
itzuli



DONOSTIALDEA-BIDASOA:



NAPH bilketa puntuak.

Ekoiztutako plastiko kopuruaren arabera bilketa puntu gehiago gehitu daitezke.



MAIZTASUNA:

Orokorra:
bi hilabetero – hil bakoitzaren 2. astean.

Bereziak:

- Oiartzun: otsailean eta maiatzean (hil bakoitzaren 2. asteko ostegunean).
- Usurbil: abenduan bilketa bat egiten da. Erabilitako plastiko kopuruaren arabera egun gehiago zehaztu daitezke.

2017. URTEAN BILDUTAKO


HONDAKINAK:

83.100 kg

**MAPA
OROKORRERA**
itzuli




UROLA-KOSTA:



Bilketa puntua
Garbigunea da.

NAPH bilketa puntuak.

Bilketa puntu batzuk adierazita eta
egokituta daude.



MAIZTASUNA:
Hilabetero, hil bakoitzaren 2.
asteartea.

**2017. URTEAN BILDUTAKO
HONDAKINAK:**
126.000 kg

**MAPA
OROKORRERA**
itzuli



Guztiok beharrezkoak eta garrantzitsuak gara

